

Oinarrizko informazioa

Europar Batasunaren Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (DBEO) ezarritakoari jarraikiz, dokumentu honetan ematen dituzun datu pertsonalen tratamenduan, baita aurrerantzean eman ahal izango dizkiguzunen kasuan ere, honako hauek erantzunkide izango direla jakinarazten dizugu: Liberty Seguros Aseguru eta Berraseguruen Konpainia SA, Kutxabank SA eta Kutxabank Aseguradora Aseguru eta Berraseguruen Konpainia SAU. Azken horrek eta Liberty Segurosek sinatutako banaketa-akordioaren esparruan jardungo dute, honako xehetasun honen arabera:

1. LIBERTY SEGUROS ASEGURU ETA BERRASEGURUEN KONPAINIA SA

Datuak babesteari buruzko oinarrizko informazioa	
Xedea	<ul style="list-style-type: none"> Kontratuaren aurreko harremanaren eta/edo aseguru-kontratuaren kudeaketa, horretarako beharrezkoak diren profilen eraketa barne
Legitimazioa (oinarri juridikoa)	<ul style="list-style-type: none"> Aurrekontratua eta/edo aseguru-kontratua gauzatzea
Datuak	<ul style="list-style-type: none"> Aseguru-kontratuaren aurretik emandakoak, polizan emandakoak eta/edo kontratuko harremanean zehar sortuak (osun-datuak barne). Osun-datuak ez dira tratatuko merkataritza-jakinazpenak bidaltzeko. Hartzaileari eta kontratuarekin lotura duten beste pertsona fisiko batzuei buruzko datuak (besteak beste, asegurutunak, onuradunak, hirugarren kaltetuak)
Hartzaileak	<ul style="list-style-type: none"> Beste erakunde aseguratzailerik eta berraseguratzailerik batzuk Organismo publikoak eta pribatuak Helburu estatistiko aktuarialak dituzten fitxategi komunak, ezbeharren likidazioak, iruzurraren prebentzioa eta ordainketa ezaren ondoriozko kaudimena kudeatzen dituzten entitateak Zerbitzuaren emailak
Nazioarteko transferentziak	<ul style="list-style-type: none"> Babes-maila egokia duten herrialdeak Estatu Batuak (EBrekin baliokidetasunik ez duen babes, baina bermeekin: klausula-ereduak, korporazio-arau lotesleak, «<i>Privacy Shield</i>» eta/edo onartzen den beste edozein mekanismo)

2. KUTXABANK SA eta KUTXABANK ASEGURADORA ASEGURU ETA BERRASEGURUEN KONPAINIA SAU

Datuak babesteari buruzko oinarrizko informazioa	
Xedea	<ul style="list-style-type: none"> Bezeroei bermatzea kalitate goreneko zerbitzua, beren interesen babes handiagoa eta kontratuaren aurreko harremanetik edo aseguru-kontratutik eratorritako edozein gertakariren jarraipen hobea.
Legitimazioa (oinarri juridikoa)	<ul style="list-style-type: none"> Interes legitimoa
Datuak	<ul style="list-style-type: none"> Aseguru-kontratuaren aurretik eman dituzunak, polizan eman dituzunak eta/edo kontratuko harremanean zehar sortuak. Hartzaileari eta/edo asegurutun hartzaileari dagozkion datuak.
Hartzaileak	<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzu-emailak zure datuetarako sarbidea izan ahalko dute. Ez da egingo zure datuen nazioarteko transferentziarik. Ez da egingo zure datuen lagapenik.

3. ERANTZUNKIDEEI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIO OROKORRA

Datuak babesteari buruzko oinarrizko informazioa	
Eskubideak	Sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta datuak eramateko eskubideak gauzatu ahal izango dituzu, informazio osagarrian adierazitakoaren arabera
Informazio osagarria	Zure datuen tratamenduaren inguruko informazio osagarri eta xehea hemen kontsulta dezakezu: www.kutxabank.com Irakurtzea gomendatzen dugu.

Informazio gehigarria eta xehatua**I. INFORMAZIO OROKORRA**

Europar Batasunaren Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (DBEO) ezarritakoari jarraikiz, dokumentu honetan eskatzaile edo hartzaile eta/edo asegurdun gisa ematen dituzun datu pertsonalen tratamenduan, baita aurrerantzean eman ahal izango dizkiguzunen kasuan ere, honako hauek erantzunkide izango direla jakinarazten dizugu: LIBERTY SEGUROS Aseguru eta Berraseguruen Konpainia SA, Kutxabank SA eta Kutxabank Aseguradora Aseguru eta Berraseguruen Konpainia SAU. Azken horrek eta Liberty Aseguruak konpainiak sinatutako banaketa-akordioaren esparruan jardungo dute.

Eskatutako nahitaezko eta ezinbesteko informazioa ematen ez bada, ezin izango da kontratuaren aurretik eta/edo kontratuan zehar harremanik sortu zurekin.

1. Erantzunkideak identifikatzea

- LIBERTY SEGUROS Aseguru eta Berraseguruen Konpainia SA («**Liberty Seguros**»), egoitza soziala: Paseo de las Doce Estrellas, 4, 28042 Madril, Espainia;
- Kutxabank SA («**Kutxabank**»), egoitza: On Diego Lopez Haroko kale nagusia, 30-32 (Bilbo, Bizkaia, Espainia); eta
- Kutxabank Aseguradora Aseguru eta Berraseguruen Konpainia SAU («**Kutxabank Aseguradora**»), egoitza: Euskadi Plaza, 5 (Bilbo, Bizkaia, Espainia).

2. Interesdunaren eskubideak gauzatzea

Datuen babeserako araudiaren esparruan, erantzunkide bakoitzaren aurrean eta horien aurka, zuri dagozkizun eskubideen kalterik gabe, eskubide horien gauzatzea erraztu eta sinplifikatzeko helburuarekin, erantzunkideek Liberty Seguros izendatu dute interesdunentzako harreman-puntu komun gisa, eta ondore horietarako, erantzunkideen izenean jardungo du, helbide honen bitartez: ejercicioderecho@libertyseguros.es.

3. Datuak Babesteko Ordezkarria

Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jarri ahal izango zara helbide honetan: dpo@libertyseguros.es.

4. Zure datu pertsonalen tratamenduan dituzun eskubideak

Eskubidea duzu erantzunkideek zure datu pertsonalak tratatzen ari diren ala ez egiazta diezazuten. Kasu horretan, datu pertsonalak eta tratamenduaren inguruko informazio zehatza (helburuak, tratatutako datuen kategoriak eta hartzaileak, besteak beste) jasotzeko eskubidea duzu. Era berean, datu okerren zuzenketa eskatzeko eskubidea duzu, baita horiek ezabatzea eskatzeko eskubidea ere, besteak beste, datu hauek jadanik jaso ziren helburuetarako beharrezkoak ez direnean. Zenbait egoeratan (adibidez, eskatzaileak bere datuak okerrak direla adierazten duenean, horiek okerrak direla egiaztatzen den bitartean), zure datuen tratamendua mugatzeko eska dezakezu. Kasu horretan, erreklamazioak gauzatzeko edo defendatzeko soilik tratatuko dira zure datu pertsonalak. Era berean, datuen eramangarritasuna eskatzeko eskubidea gauzatu dezakezu, hau da, zure datu pertsonalak erabilera arrunt eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean jasotzeko eta datu horiek beste tratamendu-arduradun bati bidaltzeko, zure datuak jaso zituen arduradunak inolako eragozpenik jarri gabe, ondore horietarako legez aurreikusitako kasuetan.

Zure egoera pertsonalarekin lotutako arrazoiak direla-eta, zure datuen tratamenduari uko egiteko eskubidea duzu edozein unetan, baldin eta tratamendua interes legitimoan oinarritzen bada. Kasu horretan, amaiera emango zaio tratamenduari, horrekin jarraitzeko arrazoi legitimoak egiaztatzen direnean izan ezik.

Zure eskubideak gauzatu ahal izateko, idatzi bat bidali beharko duzu helbide honetara: ejercicioderechos@libertyseguros.es.

Era berean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea izango duzu, zure eskubideak gauzatu ezin izan dituzunean.

5. Zure datu pertsonalak gordetzea

Liberty Segurosek, Kutxabanke eta Kutxabank Aseguradorak zure datuak gordeko dituzte kontratu-harremana zurekin mantentzen duten bitartean, baita, harreman hori amaitzen denean, arau penal, zibil, fiskal eta merkataritza-arau aplikagarrien iraungipen- eta preskripzio-epean zehar ere. Ondoren, ezabatu egingo dira

II. LIBERTY SEGUROS, ASEGURU ETA BERRASEGURUEN KONPAINIA SA

1. Zure datu pertsonalen tratamenduaren helburuak eta legitimazioa

Zure datu pertsonalak jarraian adierazten diren helburuetarako eta legitimazio-oinarrien arabera tratatuko dira:

- Kontratuaren aurreko harremana eta/edo aseguru-kontratua izapidetzea, kudeatzea eta gauzatzea; aurrekontratuaren eta/edo aseguru-kontratuaren gauzatzea izango da tratamenduaren legitimazio-oinarria;

Halaber, jakinarazten dizugu, Liberty Segurosek osasun-datuak ere tratatzen dituen heinean, datu horien tratamendua babesten duela uztailaren 14ko 20/2015 Legeak (aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarena), aseguru-kontratua gauzatzeko beharrezkoa denean eta osasun publikoaren eremuan interes publikoko arrazoiak daudenean;

- Liberty Seguros eta zure artean izandako telefono-elkarrizketetan grabaketak edo esku-hartzeak egitea, gure zerbitzuen kalitatea kontrolatzeko eta deien segurtasuna bermatzeko gure interes legitimoaren ondorio gisa. Beraz, izan ezazu kontuan zuk ez duzula konfidentzialtasunik edo pribatutasunik espero behar Liberty Segurosekin izaten dituzun elkarrizketetan. Halaber, jakinarazten dizugu, Liberty Segurosen interes legitimoan oinarrituz ere, dei horiek frogatutako bezala erabili ahal izango direla edozein prozedura judicial edo estrajudizialetan;
- Helburu estatistiko aktuarialak dituzten profilak egitea, aseguru-kontratuaren arriskua eta prima zehazteko beharrezkoak baitira, kontratazioa egin aurreko unean nahiz hori indarrean dagoen bitartean, baldintza pertsonal berrien edo oinarri tekniko aktuariaren aldaketa kontuan hartuta. 20/2015 Legea eta aseguru-kontratuaren gauzatzea izango dira tratamenduaren legitimazio-oinarria;
- Diru-betebeharren ez-betetzei buruzko fitxategi komunaren kontsulta, zure kaudimen ekonomikoa epaitze aldera, zure aseguru-kontratazioaren arriskua kalkulatzeko eta prima ezartzeko helburuarekin, eta, horrela, zure kontratua gauzatu ahal izateko gure betebehar legalen arabera;

- Honako hauetan aurreikusitako betebeharrak betetzea: 50/1980 Legea, urriaren 8koa, Aseguru Kontratuari buruzkoa; 20/2015 Legea; DDS; 26/2006 Legea, uztailaren 17koa, aseguru eta berraseguru pribatuetako bitartekotzari buruzkoa; eta aseguru-entitateei aplika dakiekeen bestelako araudia. Adibide modura: kexa eta erreklamazioen kudeaketa, hornidura teknikoaren zuzkidura, poliza, ezbehar eta inbertsioen erregistroa, edo jardunbide iruzurtiak prebenitzeko, identifikatzeko, detektatzeko, jakinarazteko eta konpontzeko neurri eraginkorrak;
- Berraseguru-eragiketetan; 50/1980 eta 20/2015 Legeak izango dira legitimazio-oinarria, baita horrek duen interes legitimoa;
- Azterketa estatistiko aktuarialak egitea Liberty Segurosen interes legitimoan oinarrituz; eta
- Aseguru-kontratuarekin loturiko kalitate-inkestak egitea, jakinik Liberty Segurosek duen interes legitimoa, kontratua behar bezala gauzatu dadin.

2. Datu pertsonalen kategoriak eta jatorria

Tratatuko diren datu pertsonalak (osasun-datuak barne) zure inguruan jasoko ditugun datuak dira, aurrekontratuaren eta/edo aseguru-kontratuaren esparruan baita eskuragarri dauden beste iturri batzuetatik lortzen ditugunak ere, Legeak hala onartzen badu:

- Zuk emandako informazioari dagokionez, aseguru-kontratua kontratatu aurretik emandako datuak tratatu ahal izango ditugu (aurrekontua, aseguruaren eskaera), baita polizan jasotzen direnak eta/edo kontratu-harremanean zehar sortzen direnak ere; eta
- Beste iturrietatik bildutako informazioari dagokionez, ondare-kaudimenari eta kredituari buruzko fitxategi komunitatik jasotzen ditugun datuak tratatuko dira. Halaber, aseguru-kontratua gauzatzearen testuinguruan, hirugarrenen datuak jaso ahal izango dira, besteak beste, abokatuak, perituak, aseguru-konpainiak, ospitaleak eta tailerrak.

Tratatu beharreko datuak hartzaileari buruzkoak izan ahalko dira, baita aseguru-kontratuarekin loturiko edozein hirugarren pertsona fisikori buruzkoak ere (adib.: asegurudunak, onuradunak edo hirugarren kaltetuak). Kasu horretan, pertsona horiei beren datu pertsonalen inguruko trataeraren berri aldeztatik aurretik eta behar bezala eman diezula adierazten duzu.

3. Zure datu pertsonalen hartzaileak

Zure datu pertsonalak jarraian jasotzen diren hartzaile-kategoriei jakinarazi ahal izango zaizkie:

- Beste berraseguru-etxe batzuk, berraseguru-arrazoia direla-eta, 50/1980 Legearen, 20/2015 Legearen eta Liberty Segurosek duen interes legitimoaren berri izanda;
- Ikertzaile pribatuak, segurtasun-indarrak, epaileak eta auzitegiak, jardunbide iruzurtiak ikertzeko helburuarekin, 20/2015 Legearen 100. artikulua arabera, trataera hori behar delako, eta Liberty Segurosek artikulua horretan xedatutakoa betetzeko duen interes legitimo nagusia kontuan hartuta;
- Liberty Mutual Insurance Company, Liberty Mutual Group Incorporated, Liberty International Holdings Inc., Liberty Mutual Technologic Group Inc. eta Liberty Taldearen beste entitate batzuk, zeinak, tratamendu-arduradun gisa, prozesu informatikoen eta aplikazioen zentralizazioaz arduratzen baitira;
- Zerbitzu profesionalak (adibidez, kanpo-abokatuak; banaketa-akordioak) eta datuak ostatatu nahiz prozesatzeko zerbitzuak emateko, sareko eta informazioaren segurtasun-zerbitzuak emateko, bezeroen harremanerako eta hodeiko konputazio-zerbitzuak emateko tratamenduaren arduradunak;

- Organismo publiko eta pribatuak, merkataritza-transakzioak ikertzeko helburuarekin, ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako borrokaren eta zehapen ekonomikoen eta merkataritza-zehapenen araudiak betetzeko legitimazio-oinarriaren arabera;
- Fitxategi komunentzako kudeatzaileak, primaren ordainketa ezaren ondoriozko kaudimena helburu dutenak, Liberty Seguros-en interes legitimoaren berri izanda; eta

4. Zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziak

Zure datu pertsonalak aurreko atalean aipatutako hartzaile-kategoriei transferitu ahal izango zaizkie. Hartzaile batzuk Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan kokaturik daude, eta bertan sartzen dira Europar Batasuneko babes-maila eskaintzen ez duten herrialdeak. Hala ere, kasu hauetan, europar eta espainiar legeria zorrotz betez tratatuko dira datuak, eta, era berean, jarraian adierazten dizkizugun bermeak ezarriko dira:

Hartzaile-kategoria	Herrialdea	Bermea
Berraseguru-entitateak	Suitza	Moldatzeko erabakia
Berraseguru-entitateak	Estatu Batuak	Batzordeak onetsitako klausula-ereduak / Korporazio Arau Lotesleak (BCR) / Pribatutasun Ezkutua
Liberty Mutual Insurance Company, prozesu informatikoen eta aplikazioen zentralizaziorako	Estatu Batuak	Batzordeak onetsitako klausula estandarrak
Sareko eta informazioaren segurtasunerako zerbitzuak emateko eta bezeroen nahiz bitartekarien harremanerako tratamenduaren arduradunak.	Estatu Batuak	Batzordeak onetsitako klausula estandarrak
Tratamenduaren arduradunak, Liberty Seguros-i hodeiko konputazio-zerbitzuak emateko.	Estatu Batuak	Datuen babeserako autoritateek egokitzat jo dituzten kontratuak/bermeak / Pribatutasun Ezkutua
Organismo publiko eta pribatuak, merkataritza-transakzioak ikertzeko helburuarekin, ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako borrokaren eta zehapen ekonomikoen eta merkataritza-zehapenen araudiak betetzeko legitimazio-oinarriaren arabera.	Estatu Batuak	Batzordeak onetsitako klausula estandarrak

Adierazitako bermeen kopia bat jaso nahi baldin baduzu Datuen Babeserako Ordezkarirengana jo dezakezu: dpo@libertyseguros.es

III. KUTXABANK SA ETA KUTXABANK ASEGURADORA ASEGURU ETA BERRASEGURUEN KONPAINIA SAU

1. Zure datu pertsonalen tratamenduaren helburuak eta legitimazioa

Kutxabank eta Kutxabank Aseguradorak tratatuko dituzte zure datu pertsonalak bezeroei kalitate goreneko zerbitzua, beren interesen babes handiagoa eta kontratuaren aurreko harremanetik edo aseguru-kontratutik eratorritako edozein gertakariren jarraipen hobea bermatzeko. Hala, interes legitimoa izango da tratamendu honen legitimazio-oinarria, bezero hauek beren datuak helburu horrekin erabiltzeko arrazoizko espektatiba izan dezaketelarik.

Bestalde, zure datuak 400 eguneko epean gorde ahal izango dira kontratu-harremana azkenik izapidetzen ez bada. Hala, etorkizunean zure kontsultak edo eskaerak kudeatzeko eta asetzeko interes legitimoa izango da trataera horren legitimazio-oinarria.

Nolanahi ere, aurka egiteko eskubidea gauzatu ahal izango duzu, goian deskribatutako terminoetan adierazitako tratamenduei dagokienez.

2. Datu pertsonalen kategoriak eta jatorria

Tratatu beharreko datu pertsonalak zure inguruan bilduko ditugunak dira, hartzaile eta/edo asegurudun hartzaile zaren aldetik, aurrekontratuaren eta/edo aseguru-kontratuaren esparruan. Zuk emandako informazioari dagokionez, aseguru-kontratua kontratatu aurretik emandako datuak tratatu ahal izango ditugu (aurrekontua, asegurua eskaera), baita polizan jasotzen direnak eta/edo kontratu-harremanean zehar sortzen direnak.

3. Zure datu pertsonalen hartzaileak

Zure datuetarako sarbidea izango dute zerbitzu profesionalak eta datuen ostatatze nahiz prozesamendurako zerbitzuak emateko eta sareko eta informazioaren segurtasun-zerbitzuak emateko tratamenduaren arduradunek.

Kutxabank eta Kutxabank Aseguradorak ez dute zure datuen nazioarteko transferentziarik egingo, eta ez dituzte zure datuak lagako.